

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco

OHIKO GALDEREN ERANTZUNAK

Koronabirusari aurre egiteko neurri zehatzak

2021eko otsailaren 15ean eguneratutako dokumentua

Euskadi, bien común





Aurkezpena

Dokumentu honen helburua da, ohiko galderen erantzunen zerrenda baten bidez, honako Dekretuen edukia hobeto ulertzea eta interpretatzea:

·926/2020 Errege Dekretua, urriaren 25ekoa, SARS-CoV-2 sistemak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaratzeko duena (2020ko urriaren 25eko BOE, 282. zk.).

·44/2020 Dekretua, abenduaren 10ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikoak testu bakar batean bildu eta eguneratuko diren, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko. (248. zk., ostirala, 2020ko abenduaren 11).

·47/2020 DEKRETUA, abenduaren 22koa, lehendakariarena, zeinaren bidez aldatzen baita honako dekretu hau: 44/2020 Dekretua, abenduaren 10ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikoak testu bakar batean bildu eta eguneratuko diren, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.

·1/2021 DEKRETUA, urtarrilaren 12koa, lehendakariarena, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: 44/2020 Dekretua, abenduaren 10ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikoak testu bakar batean bildu eta eguneratuko diren, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.

·4/2021 DEKRETUA, urtarrilaren 22koa, lehendakariarena, zeinaren bidez hirugarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: 44/2020 Dekretua, abenduaren 10ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikoak testu bakar batean bildu eta eguneratuko diren, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.

·7/2021 DEKRETUA, otsailaren 12koa, lehendakariarena, zeinaren bidez laugarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: 44/2020 Dekretua, abenduaren 10ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikoak testu bakar batean bildu eta eguneratuko diren, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.

Dokumentu hau interpretatzailea baino ez da, eta ez du inola ere ordeztzen dagokion aldizkari ofizialean argitaratutako dekretuaren edukia.

Herritarren zalantzak, orain arte egin den bezala, ZUZENEAN herritarrentzako zerbitzuaren bidez bideratuko dira:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/zuzenean-herritarrentzako-zerbitzua/>

Dokumentu honen lehen edizioa 2020ko urriaren 26koa da. Hau, otsailaren 15ekoa, bederatzigarren edizioa da eta herritarrek planteatutako zalantza berriekin eguneratu da. Galdera eta erantzun berriak sartu dira, eta erantzun batzuk zehaztu edo zuzendu dira, hobeto uler daitezzen.

Dokumentua egitura honen arabera ordenatuta dago:

·Oinarrizkoa galderak	3. orr.
·Mugikortasuna	4. orr.
·Ostalaritza	8. orr.
·Kirola	10. orr.
·Besteak	12. orr.



Galdera-erantzunak

OINARRIZKO GALDERAK

1. Indarrean jarraitzen al du lau pertsonatik gorako taldeetan espazio publiko eta pribatuetan egoteko mugak?

Bai, bizikideak badira izan ezik.

2. Indarrean jarraitzen al du Euskal Autonomia Erkidegoan sartzeko eta irteteko muga?

Bai.

3. Udal-konfinamenduak indarrean jarraitzen al du?

Bai. Mugatu egiten da bizilekua duten udalerriko barruti bakoitzeko pertsonen sarrera eta irteera, 7/2021 Dekretuaren 2. artikuluko 4. paragrafoan jasotako salbuespen orokor edo partikularrekin. Nolanahi ere, mugakide diren eta ohiko joan-etorriak dituzten udalerrien arteko mugikortasuna baimentzen da, lurralde historikoa edozein dela ere, gizarte-, ekonomia- eta kirol-jarduerak edo aire zabaleko jarduera fisikoa egiteko.

4. Udalerrri mugakideen arteko joan-etorriak egin daitezke gizarte-, ekonomia- eta kirol-jarduerak edo aire zabaleko jarduera fisikoak egiteko?

Bai.

5. Zer da jarduera sozio-ekonomikoa?

Mugakide diren udalerrien artean egin ohi diren jarduerak, eta 2.2 artikuluan jasotako salbuespenen barruan sartzen ez direnak; esaterako, supermerkatua, tindategira, jatetxera, haurtzaindegira eta mugakide den udalerrian ohiko moduan egin daitezkeen harreman sozial eta/edo ekonomiko guztiak.

6. Zer da udalerrri mugakidea? Itsasadarra bi udalerrien artean badago, zilegi da mugitzea? (Adibidez: Erandio eta Bilbo edo Getxo eta Portugalete), 2.3 artikuluan justifikatutako kasuetan.

Bizilekuaren ondoko udalerrria da, eta zuzenean sartzen da bertara, beste udalerrri batzuetatik igaro gabe. Adibideari dagokionez, onartzen da Erandio eta Bilbo artean edo Getxo eta Portugalete artean mugitzea.

7. Zein alde dago Intzidentzia-tasa Metatua 100.000 biztanleko 500 edo gehiago duen udalerrri baten edo hori baino gutxiago duen udalerrri baten artean?

Intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 500 kasu edo gehiago duten udalerrietan, bertan behera geratzen dira eskola-kirola eta taldeko kirola, bai entrenamenduan, bai lehiaketan. Salbuespen hauek daude: lehiaketa profesionalean edo erdi-profesionalean murgilduta dauden taldeen entrenamenduak eta kirol-lehiaketak, gimnasioetan, kirol-



klubetan edo kiroldegietan programatutako ikastaroak edo jarduerak, eta jarduera fisikoa eta kirol-jarduera aire zabalean eta gehienez sei pertsonako taldeetan egitea.

8. Nola jakin dezaket zein den nire udalerriko intzidentzia-tasa metatua?

Astelehenetik ostiralera, Osasun Sailak buletin bat argitaratzen du bere webgunean (<https://www.euskadi.eus>), osasun-datu guztiak eguneratuz.

Gainera, astero, astelehenetan eta ostegunetan, Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariaren ebazpen bat zabaltzen da, 100.000 biztanleko (eremu gorria) 500 kasu edo gehiagoko intzidentzia-tasa metatua duten udalerrien zerrendarekin, eta eragina dauka hurrengo egunetik aurrera.

9. Nola justifikatu daitezke irteerak udalerritik?

Dokumentu honen Eranskinean erantzukizunpeko adierazpenaren eredu bat eskaintzen da, eta eredu hori erabil daiteke lekualdaketaren arrazoia egiaztatzeko, beste modu batetik justifikatu ezin bada.

10. Indarrean al dago 22:00etatik aurrera gauez zirkulatzeko muga?

Bai.

MUGIKORTASUNA

11. Irten al naiteke Euskaditik arrazoi justifikatuengatik?

Bai, baimenduta daude behar bezala justifikatutako lekualdaketak, baldin eta urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren 6.1 artikuluan aurreikusitako salbuespenetako batengatik gertatzen badira.

12. Mugakide diren eta ohiko joan-etorriak dituzten udalerrien arteko desplazamendua, Lurralde Historikoa edozein dela ere, independentea al da bi udalerriek duten Intzidentzia-tasa metatuarekiko, banakako gizarte-, ekonomia- eta kirol-jarduerak edo aire zabaleko jarduera fisikoak egiteko?

Bai.

13. Joan naiteke ondoko herriko mendira?

Bai. Gehienez 6 pertsonako taldean joan zaitezke bizi zaren udalerriko edo ondoko udalerriko mendira.

14. Bost lagunekin gera naiteke bizikletan ibiltzeko inguruko herri mugakideetatik?

Bai. Bizilekuaren mugakide diren udalerrietatik bakarrik. Federatutako pertsonak badira, ibilbideak egin ditzakete EAEn lurralde osoan zehar, betiere jatorrizko udalerriak 500 kasu baino gutxiagoko Intzidentzia-tasa metatua badu 100.000 biztanleko.

**15. Atera al naiteke oinez konpainiarekin eta alboko herrietara joan?**

Bai, bizilekuaren mugakide diren udalerrietara bakarrik.

16. Baratzeetara joan al daiteke?

Bai, arrazoi hori dela-eta, baratzea dagoen udalerrira joan daiteke, mugakidea den ala ez kontuan hartu gabe, eta bi udalerrietan intzidentzia-tasa metatua kontuan hartu gabe.

17. Alboko udalerriko tabernara kafea hartzera joatea jarduera sozio-ekonomikotzat hartzen al da?

Bai.

18. Nire gurasoek bisita dezakete biloba, udalerrri berean bizi ez bagara?

Ez nahastu "bisita" eta "zainketa". Bisita familiarra bada, bizi garen udalerrian bakarrik egin dezakegu. Adinekoak, adingabeak, mendeko pertsonak, desgaitasuna duten pertsonak edo bereziki ahulak diren pertsonak zaintzera joanez gero, posible da, Lehendakariaren abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuaren 2.2.e) artikuluan xedatutakoaren arabera.

19. Joan al daiteke beste Lurralde Historiko batera pertsona bat aireportura, tren edo autobus geltokietara eta abarretara jasotzera edo eramatera?

Bai.

20. Dibortziatua naiz. Dibortzio-epaiaren arabera, astean bitan egon naiteke seme-alabekin; baina bizi naizen udalerrria ez den beste herri batean bizi dira. Bisita hauek egitera joan naiteke?

Seme-alabak zaintzeko joan-etorri bat, dibortzio-epai batean ezarritako araubideari jarraikiz, baimenduta dago, Lehendakariaren abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuaren 2. eta 3. artikuluetan jasotako salbuespenetako bat delako, zehazki, 2. artikulua "k) antzeko beste edozein jarduera, behar bezala egiaztatua".

21. Beste udalerrri bateko finka batean dauden animalia batzuk zaindu eta elikatu behar ditut. Mugitu naiteke? Nola justifikatzen dut?

Animaliak artatzeko joan-etorri bat baimenduta dago, Lehendakariaren abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuaren 2. eta 3. artikuluetan jasotako salbuespenetako bat delako; zehazki, 2. artikuluko "j) ezinbesteko kasua". Animalien jabetza egiaztatzen duen edozein agiriren bidez justifika daiteke, edo, bestela, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, arreta zein helbidetan emango zaien zehaztuta. (Ikus Eranskina)



22. Nola justifikatuko litzateke agintaritza baten aurrean beste udalerrri batera joan-etorri baten motiboa adinekoen edo adingabeen zaintza dela?

Pertsona arduradunak emandako egiaztagiraren bidez; horretarako, familia-lotura frogatu beharko da eta zainduko den pertsonaren identifikazio-datuak eman beharko dira. Era berean, zaintzailearen erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiazta daiteke, artatuko den pertsonaren helbidea eta telefonoa zehaztuta. (Ikus Eranskina)

23. Nire udalerriko supermerkatua txikia da, eta beste udalerrri batetik handiago batera joan ohi naiz. Egin dezaket?

Elikagaiak edo baimendutako beste produktu batzuk erosteko joan-etorriak bizilekua duten udalerriko edo mugakideko merkataritza-establezimenduetan egin behar dira.

Salbuespen gisa, bizileku den herrian ez dauden zerbitzuetarako eta horniduretarako, bizilekua den udalerritik hurbilago dagoen azalera handi edo antzeko batera lekualdatu ahal izango da.

24. Durangon bizi naiz, eta ohiko ile-apaindegia Bilbon daukat. Joan naiteke haraino?

Ez. Bizilekuaren ondoko udalerrira bakarrik joan daiteke gizarte- eta ekonomia-jarduerak edo kirol-jarduerak egitera. Gainera, bizileku-udalerritik kanpora joateko baimena ematen da, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren 6.1 artikuluan jasotako salbuespenetako batengatik, behar bezala justifikatuta, edo zure bizilekuko udalerriak zerbitzu edo saltoki hori ez badu.

25. Artziniegakoa naiz, eta Bilbora joan ohi naiz erosketak eta bestelako jarduera sozio-ekonomikoak egitera. Jarrai dezaket egiten?

Ez. Zure udalerriak edo mugakideak ez badu zerbitzu edo saltoki hori, hurbilen duzun udalerrira joan zaitezke.

26. Baimenduta al dago oraindik Euskal Autonomia Erkidegotik igarotzea Euskaditik kanpo lekualdatzeko jatorria eta helmuga duten pertsonentzat?

Bai, igarotzea baimenduta dago, baina ez beste inolako jarduerarik.

27. Kantabriakoa naiz, Bilbotik hegaldi bat dut, eta Autonomia Erkidegotik sar naiteke edo atera naiteke arrazoi horrengatik?

Joan nahiz etorrian, Euskal Autonomia Erkidegotik pasa daiteke bere helmuga Autonomia Erkidego honetatik kanpo badago; baina ezin du beste jarduerarik egin Euskal Autonomia Erkidegoan.

28. Joan al naiteke Euskaditik kanpo dagoen nire bigarren etxebizitzara?

Ez, 926/2020 Errege Dekretuan autonomia-erkidegoen arteko mugikortasuna mugatzeko aurreikusitako salbuespenen batean sartzen bada salbu.



29. Joan al naiteke Autonomia Erkidego berean dagoen bigarren etxebizitza batera?

Ez. Ohiko bizilekua duzun udalerrri berean badago bakarrik.

30. Baimenduta al dago adinekoen egoitzetara joatea?

Bai, betiere zentroak berak baimendutako bisitak badira.

31. Baimenduta al dago espetxeetara joatea?

Bai, baina, horretarako, Espetxeetako Agintaritzak emandako baimen egokia beharko da.

32. Nola arautzen dira Euskadin enklabeak diren udalerriei dagozkien gaiak?

Enklabeak diren udalerriek inguratzen dituen Lurralde Historikoaren berezko tratamendua jasotzen dute (Trebiño, Villaverde...).

33. Pisu bat dut alokatuta beste autonomia-erkidego batean eta giltzak batzera joan behar dut, errentariak etxea utziko baitu. Irten naiteke erkidegotik?

Jarduera hori atzeratzerik ez badago, ezinbesteko kasutzat jo daiteke.

34. Nola justifika dezaket joan-etorrien arrazoia?

Beste frogabiderik ez dagoenean, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahal izango da. Adierazpen hori sinatutako dokumentu bat da, eta adierazten du Dekretu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituela, mugikortasun-mugaren salbuespenak justifikatzeko. (Ikus Eranskina)

35. Zer gertatzen da dagoeneko bidaiatzeko hegazkin-txartela erosi badugu? Baliogabetu egin behar dugu?

Bidaiaren arrazoia arabera:

–Bidaiaren arrazoia aisialdia bada, ezin da bidaiatu.

–SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaratzeko duen urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren 6.1 artikuluan jasotako salbuespenetako batengatik bada, hegaldiari eutsi ahal izango zaio, betiere behar bezala justifikatzen bada.

36. Atera dezakegu maskota 22:00ak ondoren?

Ez, ezin dugu maskota atera 22:00etatik aurrera eta 06:00ak arte. Urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren 5.1 artikuluan jasotako salbuespenengatik soilik atera daiteke maskota batekin; esate baterako, larrialdiko motiboren batengatik albatariarenera eramatea.



37. Gaueko ordutegian pertsonen zirkulazio-askatasunaren muga 22:00etan bada ere, garraio publikoa 23:00etan amaitzen da. Horrek san nahi du autobusa har dezakedala 22:00etatik 23:00etara?

Urriaren 25eko Errege Dekretuaren 5.1 artikuluan jasotako salbuespenetako batengatik soilik erabili ahal izango da garraio publikoa 22:00etatik aurrera. Adibidez, osasun-arrazoiengatik, larrialdi-arrazoiengatik edo lanetik irteteko lan-ordutegiaren baldintzapean, besteak beste.

OSTALARITZA ETA JOKO ETA APUSTUEN LOKALAK

38. Zer zerbitzu eman dezakete ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduek?

Aire zabaleko terrazetan zerbitzuak eskaini ahal izango dituzte, eta barruan ehuneko berrogeita hamarreko edukiera izango dute. Bezero-taldeek ezingo dute mahai bakoitzean lau baino gehiago izan, eta ezingo dira bi mahai edo gehiago batu pertsona-kopuru handiagoko talde baterako. Maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da etengabe, elikagaiak edo edariak hartzen diren momentuan izan ezik.

Nolanahi ere, mahai desberdinetako aulkien artean gutxienez metro eta erdiko distantzia dagoela ziurtatu beharko da.

39. Zer ordutegi dute ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduek?

Ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduek, zerbitzuguneetako zerbitzuek izan ezik, gehienez ere 20:00etan itxi beharko dute, eta ezingo dute 06:00ak baino lehen ireki.

40. Zerbitzuguneetan dauden ostalaritza- eta jatetxe-zerbitzuak irekita egon daitezke 20:00etatik aurrera?

Bai. Ezarritako erregimenaren arabera egongo dira irekita, eta 20:00etatik 06:00etara bitartean egon ahal izango dira irekita, baina iragaitzazko erabiltzaileentzat bakarrik.

41. Derrigorrezkoa al da ostalaritza-establezimenduetan maskara erabiltzea?

Maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da etengabe, elikagaiak edo edariak hartzen diren momentuan izan ezik. Barruko establezimendu batean maskara behin eta berriz ez erabiltzea arrisku handiko testuingurua da.

42. Itxi al dezaket 20:00etan establezimenduaren barrualdea eta jarraitu terrazetan bezeroei arreta ematen?

Ez. Establezimenduen barrualdea eta kanpoaldea 20:00etan itxi behar dira, bezeroak ateratzea barne.

43. Jaso eta banatu al daitezke janari-eskaerak ostalaritza-establezimenduetan?

Bai. Eskaerak 21:00ak arte entregatu ahal izango dira, establezimenduan bertan hitzordua eskatuta, eta, edonola, itxita egon beharko da jendaurreko beste edozein zerbitzutarako. Etxez etxeko banaketa 22:00ak arte egin ahal izango da.

**44. Ikus al dezakegu taldean futbol partida bat taberna baten barruan?**

Lehendakariaren abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuak berariaz baztertzeko du establezimenduen barruan telebistaz eskaintzen diren kirol-ekitaldiak taldean ikustea. Dena den, bezero-taldeek ezingo dute mahai bakoitzean lau baino gehiago izan, eta ezingo dira bi mahai edo gehiago batu pertsona-kopuru handiagoko talde baterako.

45. Baimenduta al dago barran kontsumitzea?

Debekatuta dago barran edo zutik kontsumitzea, bai barruan, bai kanpoan, erabiltzaileek mahaian eserita kontsumitu beharko dute.

46. Joko- eta apustu-establezimendu batera joan naiteke?

Bai. Azken 14 egunetan COVID-19 kasu positiboak 100.000 biztanleko intzidentzia-tasa metatua 500 baino gutxiago duten udalerrietan, eta gehieneko edukiera ehuneko berrogeita hamarrekoa bada.

47. Zer ordutegi dute joko- eta apustu-establezimenduek?

Establezimendu horiek, gehienez ere, 20:00etan itxi beharko dira, bezeroen hustea barne, eta ezingo dira 06:00ak baino lehen ireki jendearentzat.

48. Baimenduta al dago ostalaritza-establezimenduetan jolas- edo apustu-makinak erabiltzea?

Bai, jolasten duen pertsona beti eserita egon behar du eta joko- eta apustu-lokaletarako ezarritako erabilera- eta higiene-baldintza berberetan.

49. Txokoak, elkarte gastronomikoak, lonjak eta antzekoak ireki al daitezke?

Ez. Txokoak, elkarte gastronomikoak, lonjak eta antzekoak itxita egongo dira.

50. % 50eko gehieneko edukiera hoteletako eremu komunetan (jantokia, kafetegia, etab.) aplikatzen den 30 pertsonako kopurua baino handiagoa izan daiteke?

Dekretuak gehienez ere % 50eko edukiera ezartzen du kanpin-hotelen eta turismo-ostatuaren eremu komunitararako, eta gune horietan ezin da inoiz 30 pertsonako muga gainditu aldi berean eta pertsonen arteko 1,5 m-ko distantzia errespetatuz.

Ostalaritza-instalazio horietako gainerako aretoek edo jantokiek % 50eko gehieneko edukiera errespetatu beharko dute, beren azaleraren arabera, eta jantokien kasuan, jatetxe-zerbitzuei aplikatu beharreko araudia errespetatu beharko dute, edo, bestelako ekitaldiak antolatuz gero, barne-espazioetako bilereki aplikatu beharrekoa.

Nolanahi ere, gogorarazten da, 20:00etatik aurrera, hotelek eta bestelako ostatuak ostalaritza- eta jatetxe-zerbitzuak ostatu hartutako bezeroei soilik eskaini ahal izango dizkietela.



KIROLA

51. Baimenduta al dago eskola-kirola?

COVID-19aren kasu positiboen azken 14 egunetako intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 500 baino gutxiagokoa duten udalerrietan, eskola-kiroleko entrenamenduak egin ahal izango dira, eta gehienez ere sei laguneko taldetan antolatuta. Taldea beti pertsona berek osatuko dute, eta ezingo dira aldagelak erabili.

Eskola-kirolean maskara erabiltzea nahitaezkoa da, bai aire zabaleko kirol-jardueretan, bai barruko esparruetan. Igerilekuetan eta kanpoan egiten den jarduera fisiko handiko aparteko uneetan baino ez dira kenduko.

COVID-19 kasu positiboen azken 14 egunetako Intzidentzia-tasa Metatua 100.000 biztanleko 500 edo gehiago duten udalerrietan, eskola-kirola etenda geratuko da.

52. Eta eskola-kiroleko lehiaketa?

Ez.

53. Ikasleek aldagelak erabil ditzakete?

Ez. Aldagelak ezin dira erabili eskola-kirolean, erabiltzaileek erabili behar dituzten igerilekuetako aldagelak izan ezik, jakina.

54. Baimenduta al daude eskola-kiroleko entrenamenduetarako joan-etorriak?

Desplazamenduak baimenduta daude, baldin eta Intzidentzia-tasa Metatua 100.000 biztanleko 500 kasutik beherakoa bada, bai jatorrizko udalerrian, bai helmugako udalerrian.

55. Zer kirol-jarduera dago baimenduta, Intzidentzia-tasa Metatuaren arabera?

COVID-19aren kasu positiboen azken 14 egunetako intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 500 baino gutxiagokoa duten udalerrietan, federatu gabeko kirol-jarduera fisikoa bakarka edo taldeka egin ahal izango da aire zabalean, kontaktu fisikorik gabe, eta aldi berean 6 laguneko taldeetan, gehienez ere.

COVID-19aren kasu positiboen azken 14 egunetako intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 500 edo gehiagokoa duten udalerrietan, bertan behera geratzen da taldeko kirol-jarduera oro, bai entrenamenduan, bai lehiaketan. Salbuetsita daude, eta, beraz, egin ahal izango dira lehiaketa profesionalean edo erdi-profesionalean murgilduta dauden taldeen entrenamenduak eta kirol-lehiaketak, gimnasioetan, kirol-klubetan edo kiroldegietan programatutako ikastaroak edo jarduerak, eta jarduera fisikoa eta kirol-jarduera, aire zabalean eta gehienez sei laguneko taldeetan. Azken hori, ingurune naturalean edo hiri-inguru periferikoetan, eta jende pilaketarik gabe.

56. Kendu al dezaket maskara, bakarka, hiri-inguruetan kirola egiten dudan bitartean?

Kirol-jarduera orotan, nahitaez erabili behar da maskara. Hauek dira salbuespenak: eremu naturalean, hirigune periferikoetan (oinezkorik gabe), igerilekuetan, lehiaketa profesionalean edo erdi-profesionalean dauden taldeen entrenamenduetan, lehiaketetan eta kanpoan egiten den jarduera fisiko biziko aparteko uneetan.



57. Derrigorrezkoa al da maskara erabiltzea kiroldegi, gimnasio eta barruko esparruetan?

Bai

58. Aldagelak eta dutxa-guneak erabil daitezke?

Bai, gehieneko edukieraren ehuneko 30eko okupazioarekin. Halaber, dutxak erabili ahal izango dira, baldin eta banaka erabiltzen badira. Maskara nahitaez erabili beharko da, dutxatzeko unean izan ezik, eta une oro errespetatuko da erabiltzaileen arteko segurtasun-distantzia. Aldagelak etengabe aireztatu beharko dira erabiltzen diren bitartean eta, gainera, ireki aurretik eta itxi ondoren. Aireztapena mekanikoa bada, kanpoko airearen sarrera maximizatu beharko da eta airearen birzirkulazioa saihestu.

59. Zer ulertzen dugu kirolari erdi profesional diogunean?

Egutegi ofizialeko Estatuko eta nazioarteko lehiaketetan eta Euskal Federazioak antolatutako maila goreneko lehiaketetan parte hartzen duten kirolariak dira, guztiak kategoría absolutuan, Eta Estatuko edo nazioarteko lehiaketetan dagokien kategoría absolutua baino beheagoko kategorian. Atal honetan kategoría absolutuko maila goreneko bertoko kirol-lehiaketak sartzen dira.

60. Beste udalerrri batera joan naiteke partida bat jokatzera?

Desplazamendu horiek 3 kasutan baimentzen dira:

1. Mugakide diren eta ohiko joan-etorriak dituzten udalerrien arteko mugikortasuna baimentzen da, lurralde historikoa edozein dela ere, gizarte-, ekonomia- eta kirol-jarduerak edo aire zabaleko jarduera fisikoa egiteko.
2. Bizilekuaz bestelako Euskal Autonomia Erkidegoko beste udalerrri batera mugitzea baimenduta dago, baita mugakideak ez diren ere, lehiaketa profesionalean edo erdi-profesionalean ari diren taldeen entrenamenduetarako eta kirol-lehiaketetarako, azken 14 egunetako COVID-19 kasuen intzidentzia-tasa metatua edozein dela ere.
3. Bizilekua dagoen udalerrria ez den beste udalerrri batera mugitu ahal izango da, mugakidea ez bada ere, kirol federatuko lehiaketetarako eta entrenamenduetarako, eskola-kiroleko entrenamenduetarako, bai eta gimnasioetan, kirol-elkartetan edo kiroldegietan programatutako ikastaroetarako edo jardueretarako ere, **betiere**, kasu horietan guztietan, jatorrizko udalerrrian zein helmugako udalerrrian COVID-19aren kasu positiboen azken 14 egunetako intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 500 baino txikiagoa bada.

61. Baimenduta al dago ehiza-jarduera bere modalitate guztietan, bai eta ibaiko eta itsasoko arrantza, kirol-arrantza eta jolas-arrantza ere, modalitate guztietan?

Bai, bizi zaren udalerrrian eta mugakidean. Nolanahi ere, beti errespetatu behar da pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-distantzia, eta nahitaezkoa da maskara erabiltzea.

62. Publiko gisa joan naiteke kirol-ekitaldi batera?

Ez. Debekatuta dago jendeak kirol-ekitaldietara joatea.

**63. Gimnasio bateko makina-gelan kirola egin dezaket?**

Bai, banaka, maskara erabiliz, segurtasun-distantzia mantenduz eta baimendutako gehieneko edukiera errespetatuz.

64. Ikastaroak edo jarduerak taldean eskain daitezke?

Gimnasioetan, kirol-klubetan, igerilekuetan eta kiroldegietan programatutako ikastaroak edo jarduerak bakarrik egin ahal izango dira, baldin eta maskara erabiliz egiten badira, kanpoan egiten diren jarduera fisiko aparteko uneetan izan ezik. 6 pertsonako taldeetan gehienez, eta edukiera ehuneko 50era mugatuta badago.

65. Kirolari federatu bat lehiatu daiteke?

COVID-19aren kasu positiboen azken 14 egunetako intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 500 baino gutxiagokoa duten udalerrietan, lehiaketa profesionalean eta federatuan murgilduta dauden taldeen entrenamenduak eta kirol-lehiaketak egin ahal izango dira.

COVID-19aren kasu positiboen azken 14 egunetako intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 500 edo gehiagokoa duten udalerrietan lehiaketa profesionalean edo erdi-profesionalean murgilduta dauden taldeen entrenamenduak eta kirol-lehiaketak egin ahal izango dira bakarrik.

BESTEAK**66. Musika eta abesbatzen entseguak debekatuta daude oraindik?**

Etenda jarraitzen dute ahots-musikako entsegu eta jarduera kolektibo ez-profesionalek, hezkuntza arautuan daudenen kasuan izan ezik.

67. Eta dantza taldeenak?

Dantza-talde ez-profesionalen entseguak baimentzen dira, eta, nolahi ere, zorrotz errespetatu behar dira pertsonen arteko segurtasun-distantziaren, maskara erabiltzearen eta kontaktu fisikorik gabeko sei laguneko taldeen prebentzio-baldintzak.

68. Zer edukiera errespetatu behar du saltoki txiki batek?

150 metro koadro baino gutxiagoko establezimenduek ezingo dute edukieraren ehuneko 60 gainditu.

69. Eta azalera handia bada?

150 metro koadrotik gorako azalera duten merkataritza-establezimenduek edukieraren ehuneko 40ko gehieneko edukiera baimendua izatera igaroko dira, eta, hala badagokio, gehieneko edukiera hori bera aplikatuko zaie merkataritza-guneei solairu eta saltoki bakoitzean, haien azalera edozein dela ere. Merkataritza-guneetako arduradunek neurri nahikoak jarriko dituzte muga hori betearazteko.



70. Joan naiteke ikastera bizitoki dugun udalerrian ez dagoen zentro, akademia edo euskaltegi batera? Nola justifikatuko dut?

Egoera hori berariaz jasota dago urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren 6.1.c artikuluan, hau da, *Unibertsitateetara, ikastetxeetara eta ikastetxeetara joatea, hezkuntza-eskolak barne*. Baliozkoa eta nahikoa den edozein dokumenturen bidez egiaztatu ahal izango da.

71. Supermerkatuek edo elikagaien dendek sal dezakete alkohola 21:00etatik aurrera? Eta beranduago ixten badute?

21:00ak eta 08:00ak artean ezingo da alkoholik saldu. Era berean, ezin da bide publikoan kontsumitu.

72. Joan gaitzke bizitoki dugun udalerritik kanpo egiten den hileta, hil-beila edo ehorzketa batera? Eta Autonomia Erkidegotik kanpora?

Bizitoki dugun udalerrian egiten diren hileta, beila edo ehorzketetara joan gaitzke. Udalerritik eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo gertatzen direnetara bigarren mailara arteko senideak joan ahal izango dira.

Nolanahi ere, atal honetan ezarritako neurriak bete behar dira:

-Hil-beiletan, 30 pertsona batu ahalko dira, gehienez, aire zabaleko espazioetan, eta 6, espazio itxietan. Bertaratzen den pertsona-kopurua txikiagoa izanez gero, ezingo da baimendutako edukieraren % 50 gainditu.

-Hildakoaren ehorzketan edo haren errausketarako agurrean, 30 pertsona egon ahalko dira, gehienez, betiere espazio irekian egiten bada. Espazio itxian eginez gero, gehienez 10 pertsona batu ahalko dira, eta, nolanahi ere, pertsonen arteko distantzia gorde beharko da.

-Kasu guztietan erabili beharko da maskara.

73. Gaueko zer ordotara arte egongo da garraio publikoa?

Hiru lurralde historikoetako eremu txikiagoko garraio publikoaren azken irteera 23:00etan izango da. Gidaridun taxia edo ibilgailua izan ezik.

74. Jan edo edan daiteke garraio publikoan?

Bidaia-denbora bi ordotik beherakoa bada, ezin da, baina bai edan. Nolanahi ere, gaur egungo testuinguruan, berariaz ez da gomendatzen alkohol-kontsumoa garraio publikoan.

75. Badago okupazio-mugarik garraio publikoan?

Ez, garraio publiko eta pribatuetan ibilgailuak duen plaza adina pertsona joan ahalko da, betiere maskara jantzita.



76. Zer gertatzen da kultur ekitaldi batera joan eta hau 22:00ak baino beranduago amaitzen bada?

Jarduera edo ekitaldi kultural edo sozialik ezingo da 21:00ak baino beranduago amaitu. Ordu bete izango da (22:00ak arte) etxera itzultzeko.

77. Egin al daitezke erkidegoen bilerak edo jabeen batzarrak?

Bilerak egin ahal izango dira, betiere topaketak egiten diren lokaletan ezarritako edukiera-mugak betetzen badira. Hala ere, bertaratutakoen joan-etorriei dagokienez, kontuan hartu beharko dira indarrean dauden mugikortasun-mugak, eta beti errespetatu beharko dira.

78. Akziodunen edo kooperatibisten batzarretara jo daitezke?

Bai. Horrelako ekitaldietara joatea baimentzen da, inolako lurralde-mugarik gabe. Bana-banako dokumentu bat eraman beharko da, erakunde antolatzaileak beteta eta igorrita, joan-etorri hori justifikatzeko.

79. Baimenduta al dago arrazoi sindikalengatik, alderdi politikoan, enpresa-elkartean eta antzekoen jarduerengatik lekualdatzea?

Bai. Jarduera instituzional edo profesionaltzat jotzen baitira.

80. Baimenduta al dago manifestazioetara joateko mugikortasuna?

Irizpide orokor gisa, manifestazioa egiten den herrian edo mugakidean bizi diren pertsonak bakarrik joan litezke. Hala ere, manifestazioetan, elkarretaratzeetan edo kaleratzeengatik egindako protestetan, ordezkari sindikalak eta zuzenean kaltetutako langileak joan ahal izango dira.

81. Erre daitezke bide publikoan?

Bi metroko gutxieneko distantzia gordetzerik badago bakarrik.

82. Derrigorrezkoa al da erabilera publikoko establezimenduak eta lekuak aireztatzea?

Erabilera publikoko establezimenduek eta tokiek aireztapen iraunkorra bermatu beharko dute egunean zehar, eta lokalak ireki eta ixten direnean ere bai. Aireztapena mekanikoa bada, kanpoko airearen sarrera maximizatu beharko da, eta airearen birzirkulazioa saihestu. Aireztapen- eta girotze-sistemek indarrean dagoen araudiaren arabera eraikinetan eta lokaletan jarduteko eta mantentze-lanak egiteko gomendioak bete beharko dituzte.

83. IAT nire ibilgailura pasatu behar badut eta izapidea 22:00etatik aurrera amaitzen badut, baimenduta dago lekualdatzea?

Bai, itzulerako bidaia zuzenean egin ahal izango da bizilekura, baldin eta egindako izapidea egiaztatzen bada.



84. Herritar batek, zirkulatzeko baimenduta dauden ordutegiak betez gero, bizilekua duen udalerrria ez den beste udalerrri batean igaro al dezake gaua karabanan?

Ez, soilik igarobidean badago eta karabanentzat baimendutako lekuetan aparkatzen badu.

85. Kontsulta medikoetara beste pertsona bat lagundu daiteke?

Bai, laguntzaile bat onartzen da.

86. Baimenduta al dago gurtza-lekura joatea (meskita) beste udalerrri batera, gure udalerrian bertan ez badago?

Aurreko udal-mugikortasunaren murrizketan interpretatu zen bezala, erlijio-zerbitzuetara edo kultu-zerbitzuetara joateko aukera ematen da, baina salbuespen gisa, bizileku den udalerrian ez badago, eta beti gertuen dagoen lekura. Ez dago inolako muga kuantitatiborik, eta behar beste aldiz egin daitezke. Era berean, gurtza-zentroko batzordekideak, soldatapekoak izan ala ez, oratorioa dagoen udalerrian bizi ez badira, erregulartasunez joan daitezke irekitzera eta ixtera, garbitzera edo mantentzera

**ERANSKINA****ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA KANPOKO
JOAN-ETORRIAK JUSTIFIKATZEKO, LEHENDAKARIAREN
ABENDUAREN 10EKO 44/2020 DEKRETUAREN ESPARRUAN**

_____jn/ad, _____NAN zenbakiarekin,
Helbidea: _____, Telefonoa: _____, Helbide
elektronikoa: _____.

Erantzukizunez adierazten du lekualdatzeko arrazoia honako hau dela:

_____(e)n, 2021eko _____ ren _____(e)an.

SIN: _____